

KONTROL MOZIOA

UDAL-ERAIKINETAN EGUZKI-ENERGIA SORTZEKO PROIEKTUEN LEHENTASUNEI BURUZKOA

Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko urriko Lurralde Garapeneko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legearen arabera, 2030. urterako EAEko administrazio publiko bakoitzak % 35 murriztu behar du energia-kontsumoa eraikin guztietan, eta energia berriztagarriak aprobetxatzeko behar beste instalazio izan behar ditu, administrazio horren kontsumoaren % 32 hornitzeko, aprobetxamendu termikoko eta sorkuntza elektrikoko sistemak barne.

2020ko martxoaren 17an, Tokiko Gobernu Batzordeak Donostiarako Larrialdi Klimatikoaren Adierazpena onartu zuen. Erabakiaren berri emateko zabalduetako idazkian ondo jasotzen zen bezala, "larrialdi klimatikoa adierazteak berekin dakar konpromiso politiko erreal eta lotesle batzuk betetzea", eta horien artean zegoen, besteak beste, "% 100 berriztagarria den energiaren alde apustu egitea".

2021eko otsailaren 8an, Donostiako Udalbatzak Eraikuntzako Energia Eraginkortasunari buruzko Udal Ordenantza berria onartu zuen. Udal-arauak, alde batetik, energia-eraginkortasun handia sustatu nahi du eraikin berrietan zein eraikitakoetan, eta, bestetik, eraikuntzan energia berriztagarrien ezarpena areagotu nahi du. Zentzu horretan, azken urteotan hainbat instalazio fotovoltaiko jarri dira martxan udal-eraikinetan, hala nola Zuhaitzi-Aldakoeneko eskolan, Amara Berriko eskolan, Aieteko eskolan, Igeldoko eskolan, Urdanetako udal-bulegoetan, Portuuetxeko udal-brigadaren eraikinean, Pio Barojako kiroldegian, Paco Yoldi kiroldegian, Manteoko kiroldegian edo Altzako kiroldegian.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Donostiako Udaleko Ingurumen Sailak “bere eraikinetan eraginkortasun energetikoa hobetzeko eta energia berriztagarriak ezartzeko” duen estrategiari jarraituz, 2024ko maiatzaren 14ko Tokiko Gobernu Batzarrak “autokontsumorako 3 eguzki-instalazio fotovoltaiko” berri garatzeko proiektua onartu zuen, ondorengo eraikinetan: Ikasbide erribera Eskola, Orixe Zuloaga Eskola eta Zurriola Maritimo.

Udal-eraikinetan eguzki-energia sortzeko instalazioak azkartzearen aldeko apustua egiten du EH Bilduk; hala ere, Zurriola Maritimo eraikineko proiektuak nolabaiteko harridura sortu zigun, eraikinaren kudeaketa irabazi-asmoa duen enpresa bati esleitua baitago, eta ezin dugu ahaztu instalazio hauen helburua dela “energia berriztagarria sortzea, eraikinaren kontsumoari laguntzeko”.

Hori dela eta, interpelazioa aurkeztu genuen urriko udal-batzordeetan, eta, besteak beste, ea zergatik lehenetsi zen eraikin hori galdetu genuen, udal eskumenekoak diren eta oraindik halako instalaziorik ez duten beste hamaika eraikin baino lehen. Zinegotzi ordezkariak adierazi zuenez, Zurriola Maritimo eraikineko instalazio fotovoltaikoak, lehenik eta behin, eraikina bera hornituko du, nahiz eta soberakinak Zurriola hondartzaren bueltan dauden udal-ekipamenduak hornitzeko erabiliko diren.

Mozio honen helburua ez da aipagai dugun instalakuntzaren irismena gutxiatea, baizik eta udal-eraikinetan eguzki-energia sortzeko proiektuen lehentasunak birbideratzeari buruz hausnartzea. Izan ere, krisi ekologikoa bizkortzen ari da, eta horrek ezinbesteko trantsizio sozio-ekologikoa bizkortzera behartzen du. Donostiarrak horren jakitun dira, eta horren erakusgarri da tokiko energia-komunitateekiko duten gero eta interes handiagoa. Bada, zalantzarik gabe, eraikin publikoetako energia-proiektuek berebiziko ekarpena egin dezakete komunitate horiek sortzeko eta laguntzeko. Are gehiago, begi-bistakoa da zenbait komunitate ezin izango direla garatu administrazio publikoaren laguntzarik gabe.

Ekoizpen- eta kontsumo-eredu berri batera egokitu behar dugu, baliabide iraunkor eta berriztagarrietan oinarritua, non lankidetzaren publiko-komunitarioaren ereduak funtsezko zeregina duen. Eta Altzako kiroldegiari buruzko mozioak, Udalbatza honek 2024ko otsailean onartutakoak, jarraitu beharreko norabidea markatu zuen, besteak beste honako hau proposatu baitzuen: “autokontsumorako erabiliko ez den teilatu zatia eskaini diezaiela inguruan sor daitezkeen energia komunitateei, haien plakak jarri ahal izateko”.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, 2024ko otsaileko Udalbatzan hartutako konpromisoari jarraituz, udal-eraikinetan eguzki-energia sortzeko proiektuen plangintzan lehentasuna ematea Tokiko Energia Komunitateekin lankidetzan aritzea ahalbidetuko duten eraikinei.

Donostian, 2024ko urriaren 18an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga

EH Bildu udal taldeko zinegotzia